# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

### Zk-5917

242/2001 DEKRETUA, urriaren 23koa, Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea sortu eta arautzen duen Dekretua hirugarrengoz aldatzen duena.

Apirilaren 25eko 249/1995 Dekretuz sortu zen Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea, eta 2. artikuluko 1. paragrafoan ezarri zen bere lehenengo osaketa. Urriaren 7ko 225/1997 Dekretuz aldatu egin zen xedapen hori, hain zuzen ere, Batzorde horretako kide bat ordezkatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu ziren Lehendakariaren 1/1999 Dekretuz. Dekretu horretan ezarritako Administrazio sailen egitura berrantolatzeak eta sailen eskumenak izendatzeak bigarren aldaketa bat ekarri zuen. Aldaketa horrek bermatu zituen, alde batetik, Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen eta berrantolaketa horren arteko adostasuna; eta bestetik, egitekoen egokitasun formala, hain zuzen ere, jardunean egon den bitartean pilatutako eskarmentua oinarri hartuta eta garatu beharrekotzat jotzen ziren egitekoak beren-beregi izendatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen Dekretua aldatzeari buruzkoa da Lehendakariaren irailaren 17ko 19/2001 Dekretua. Dekretu horren zati xedatzailean xedatzen denez, adostasunerako bideak aurkitzeko prozesu bat irekitzean oinarritzen da VII. Legegintzaldiaren hasiera. Adostasun horrek ekarriko lituzke bai egonkortasun politikoa eta instituzionala, eta bai, ondorioz, Lehendakariak Legebiltzarrean azaldutako gobernu programaren alde beste alderdi politiko bat agertzea. Uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuz ezarritako Administrazio sailen egitura eta sailen eskumen izendapena berrantolatu egiten dira, orain, dekretu honen bidez; eta bermatu, bide batez, Jaurlaritzak bere zeregin politiko administratiboekin jarraitu ahal izatea.

Bidezkoa da, aurrekoarekin bat, Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen osaera aldatzea. Bermatu egingo da horrekin, Jaurlaritza aunitz hau osatzen duten alderdi guztiek batzordean ordezkariak izatea; izan ere, Jaurlaritzaren eginkizun estrategikoa errazteko oso organo garrantzitsua baita helburu legetxe koordinazioa eta plangintza dituen batzorde hau.

# Disposiciones Generales

## VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-5917

DECRETO 242/2001, de 23 de octubre, de tercera modificación del Decreto por el que se crea y regula la Comisión Delegada para Asuntos Económicos.

La Comisión Delegada para Asuntos Económicos fue creada por el Decreto 249/1995, de 25 de abril y su inicial composición quedó fijada en el apartado 1 del artículo 2 de esta norma. El Decreto 225/1997, de 7 de octubre, modificó el precepto citado en orden a sustitución de uno de los miembros de dicha Comisión.

La reordenación de la estructura departamental de la Administración y de la asignación competencial entre los Departamentos de la misma establecida mediante el Decreto 1/1999, de 4 de enero, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, dio lugar a una segunda modificación que garantizó la congruencia de la composición de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos con la citada reordenación y, a su vez, abordó, en base a la experiencia acumulada en su funcionamiento, la adecuación formal de sus funciones mediante la expresa asignación de aquéllas que era oportuno que desarrollase.

El inicio de la VII Legislatura que, como así se especifica en la parte expositiva del Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, del Lehendakari, por el que se modifica el Decreto, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se asienta sobre la apertura de un proceso de búsqueda de fórmulas de consenso que posibilite la estabilidad política e institucional y, en consecuencia, en la adhesión de una nueva fuerza política al Programa de Gobierno expuesto por el Lehendakari en el Parlamento, ha determinado una reordenación de la estructura departamental de la Administración y de la asignación competencial entre algunos Departamentos de la misma establecida mediante el reciente Decreto 7/2001, de 16 de julio, garantizando, de esta forma, la continuidad de las tareas político-administrativas el Gobierno.

En coherencia con lo anterior, resulta oportuno modificar la composición de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos en función de la citada reordenación, garantizando la representación en la misma, en cuanto órgano de coordinación y planificación de capital importancia para facilitar la labor estratégica del Gobierno, de todas las fuerzas políticas que componen este Gobierno plural.

Ondorioz, Jaurlaritzaren lehendakariordearen proposamenez, Lehendakaritzak aldez aurretik onartu eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko urriaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea sortu eta arautzen duen apirilaren 25eko 249/1995 Dekretuaren 2. artikuluko 1. paragrafoa aldatzea, aurrerantzean honela geldituko dela:

«*2. artikulua.*– Osaera

1.– Honako kide hauek osatzen dute Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordea:

a) Lehendakaria, buru izango dela.

b) Jaurlaritzaren lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua. Lehendakaria agertzen ez denean lehendakariordea izango da Batzordearen buru.

c) Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.

d) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua.

e) Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen sailburua.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko urriaren 23an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

En su virtud, a propuesta de la Vicepresidenta del Gobierno, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de octubre de 2001.

DISPONGO:

***Artículo único.***– Se modifica el párrafo 1 del artículo 2 del Decreto 249/1995, de 25 de abril, por el que se crea y regula la Comisión Delegada para Asuntos Económicos que queda redactado de la forma siguiente:

«*Artículo 2.*– Composición.

1.– La Comisión Delegada para Asuntos Económicos estará integrada por los siguientes miembros:

a) El Lehendakari que la presidirá.

b) La Vicepresidenta del Gobierno y Consejera de Hacienda y Administración Pública. En los casos de no asistencia del Lehendakari será la Vicepresidenta quien ostentará la presidencia de la Comisión.

c) El Consejero de Industria, Comercio y Turismo.

d) El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

e) El Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de octubre de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Vicepresidenta del Gobierno,
IDOOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.